

4. MENDIKO FRUITUAK ETA ARRANTZA

Bada, bueno, ez, bildu... ez, hartzen genituen han hola, aurrez hartzen genuen... hartu eta jan han berean edo hartu...

Eta nola deitzen zenituzten?

Morak.

Morak?

Bai.

Eta, marrubiak edo fresak edo nola?

Ez dakit, fresak. Erdaraz erraten genuen.

Marrubi ez?

Ez, ez dut aditu, ez. Gero onddoak, xixak eta gaztaina, eta hori...

Gaztaina bai, eta hemen intxaurrondorik ez da?

Ez, intxaurra erraten genuen, hala no ez, hemen ez da.

Hurritzak bai, ordea?

Hurritzak bai.

Eta hartzen zenituzten hurrak?

Bai, bueno, ez anitz, e? Gehienez beti zulatuak ziren eta, bueno, bat edo bertze beti hartzen genituen, baina, ez, hartu puz hola, bakar batzuk eta hola, harri batekin hautsi eta jan, baina hola, ez ziren onak izaten gehienez, gehienez, e?

Eta amuarrainetan bai ibiltzen zineten?

Amuarrainak? Bai, udan hola denbora genuelarik, eskuz pixka bat, baziren amuarrainak orduan. Orduan bai, baina bueno, hartzen genituen puz, bazen lana nonahi, puz hola, belar denbora, puz hola, zenbat aldiz bazkaldu eta tarte horretan eskapada bat egiten genuen errekar hartzeko baina, klaro, hemen hartzeko behar du denbora ona izan, ura hotza da eta pixka bat epeltzen delarik, zozotuak daude, bertzela ur hotzarekin sartu eske eta ba! jauzi egiten zuten eta, behar duzu hola, denbora gozoa, hartzeko bueno, bada dozena bat hartzeko, ez gehiago.

Eta gero errekan dauden bertze arrain ttipi horiek?

A! Txipak? Bai. Horiek hartzen genituen botilekin. Xanpain botila batzuk baziren eta ipurtzuloa hautsi eta sartzen genuen kortxoa eta gero korda batekin han, sartu korda eta tinkatu kortxo harekin. Eta gero ogi porroska batzuk sartu eta uzten genuen. Eta hartzen genituen hola, ba! hartu orduko dozena bat, gero egiteko tortilla. Bueno, ba!

Eta igelak? Edo negelak, nola erraten duzue?

Igelak, rana. Horiek bai, hartzen genituen, bai.

Ur igelak erraten duzue edo nola?

Igelak, bai.